

EUROPAR PROIEKTUETAN PARTE HARTZEN DUTEN HEZIKETA ZIKLO ETA ESPEZIALIZAZIO IKASTAROTAKO IKASLEAK HAUTATZEKO BALDINTZAK ETA FUNTZIONAMENDUA

Dokumentu honetan Europar proiektuetan parte har dezaketen Heziketa Ziklo eta Espezializazio Ikastarotako ikasleak hautatzeko oinarrizko baldintzak ezartzen dira. Betekizun horiez gain, kontuan hartuko dira proiektu bakoitzaren deialdiari dagozkionak.

1. Eskaera

1. mailako azken lauhilekoan, aurrez zehaztutako egunetan, Erasmus+ beken deialdian parte hartu nahi duten ikasleek eskabide-orria eta eskatutako dokumentazioa aurkeztuko dituzte, arduradunek adierazitako moduan eta lekuan.

Espezializaziotako ikasleentzako epea ikasturtea hastean irekiko da.

Urtero, Erasmus+ programak ikastetxeari esleitutako funtsen eta beka kopuru osoaren arabera, Erasmus+ Hautaketa Batzordeak modalitate bakoitzerako bideratuko den beka-kuota finkatuko du prozesua hasi aurretik.

Banaketa hori honako irizpide hauen arabera egingo da:

- LHko Ziklotako Kuota: beka kopuru osoaren % 80 bideratuko da talde honetara, haien praktika aldiaren iraupena (normalean 2-3 hilabete FCT/Dualerako) eta ikasle kopuru bolumena kontuan hartuta.
- Espezializazio Kurtsoetako Kuota: beka kopuru osoaren % 20 erreserbatuko da modalitate honetarako. Kurtso hauen profil tekniko altua eta nazioartekotzeko beharra bultzatzea da funts hauen helburua (kurtso hauen mugikortasunak laburragoak izaten dira, 60 egunekoak). Mugikortasun prozesurako hautaketa hasi ahal izateko, dagokion mintegiak, hellmugako herrialdean, ikasketa mailari dagozkion praktikak ziurtatuta eduki beharko ditu

Funtsen Kudeaketa Eraginkorra eta Birbideratzea ahalbidetzeko, baldin eta profil bati esleitutako kuotan hautagai nahikorik ez balego (baldintzak ez betetzeagatik edo uko egiteagatik), Erasmus+ Hautaketa Batzordeak eskubidea izango du beka horiek beste profilera transferitzeko, itxaron-zerrendako ordenari zorrotz jarraituz. Helburua beti izango da ikastetxeari emandako funtsen %100 erabiltzea.

2. Familia Profesionalen Arteko Ekitatea

Ikastetxearen helburu estrategikoa da atzerriko mugikortasunak zentroko familia profesional guztietara hedatzea, ikasle guztiei aukera-berdintasuna bermatuz.

Horretarako, honako neurria ezartzen da:

- Gutxieneko Ordezkaritza: beka kopuruak ahalbidetzen duenean, Erasmus+ Hautaketa Batzordeak ahalegina egingo du ikastetxeko familia profesional bakoitzetik (gutxienez) ikasle bat hautatua izan dadin, betiere ikasle horrek 3. atalean azaldutako gutxieneko baldintzak betetzen baditu.

Eskabide guztiak jaso ondoren, ondoren zehaztutako oinarritzko baldintzen arabera baremazioa burutuko da.

3. Parte hartzeko oinarritzko baldintzak eta baremazioa

1. Erasmus+ deialdian parte hartzeko, ikasleek baldintza hauek bete behar dituzte, epeen eta matrikulazio-egoeraren arabera:

- **Heziketa Ziklotako** ikasleak:

Izen-ematea: Heziketa Zikloko 1. Mailan daudenean egingo dute (ikasturte amaieran).

Hautaketa-prozesuaren hasiera: 2. Mailan hasten direnean abiaraziko da.

Baldintza akademikoak: ez dute aurreko ikasturteko (1. Mailako) gainditu gabeko modulurik izango prozesua hasten denean.

1. ikasturtean lortutako batez besteko notak % 30eko balioa izango du.

- **Espezializazio Ikastarotako** ikasleak:

Izen-ematea eta prozesua: biak batera jartzen dira martxan ikasturtea hasten denean (matrikulatuta dauden aldi berean).

Aurrez eginiko Zikloaren batez besteko notak % 30eko balioa izango du.

- **Salbuespenezko kasuak:** Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten aparteko egoerak, Hautaketa Batzordeak aztertu eta baloratuko ditu.

2. **Jarrera:** lehenengo mailako 2. finalean eta, beharrezkoa bada, irailean, **dagokion irakasle-taldeak honako alderdi hauek baloratuko ditu:** puntualitatea, ardura, ekimena,

behatzeko gaitasuna, entzuten jakitea, jarraibideak betetzeko gaitasuna, ikaskideekiko harremanetarako gaitasuna, diskrezioa eta errespetua.

Baloratutako azken atalen 5eko notatik 3ra iristen ez den izangaia, automatikoki prozesutik kanpo geratuko da.

Batez besteko jarrera-notak % 30eko balioa izango du.

3. **Hizkuntza maila:** hautagaiek ingeles-mailako proba bat egin beharko dute. Proba horrek 7 puntu balioko ditu. Hizkuntza-titulu ofizialen bat (B1, B2, C1, C2) duten edo modalitate eleanitzean ikasten ari diren ikasleek ez dute proba hori egin beharko, baldin eta dagokion ziurtagiria/titulua aurkezten badute.

C2----- 10 puntu

C1----- 9 puntu

B2 ----- 8 puntu

B1-----6 puntu

Eleanitzekoak - 7 puntu

Azterketa egin behar, eta aurkezten ez den ikaslea, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Hizkuntza-mailaren notak % 30eko balioa izango du.

4. **CV-a eta aurkezpen-gutuna:** dokumentu horiek aurkeztu beharko dira, **ingelesez** eta **Europass** eredua erabiliz.

Baremaziorako 10%ko balio izango du atal honek.

- **Aurreko ataletako edozein gaınditzen ez bada, prozesutik kanpo geratuko da**

4. Azken puntuazioa

Parte-hartzaile bakoitzaren azken nota honela lortuko da: **1. Mailako / aurrez eginiko Zikloaren batez besteko nota % 30, jarrera % 30, hizkuntza-maila %30, eta CV-a Aurkezpen-gutunarekin %10.**

Berdinketarik egon ezker, kontuan hartuko dira ondorengo hurrenkeran, jarrera-nota altuena, hizkuntzan nota altuena eta espedienteko nota altuena izatea.

- **Inklusioa eta Aukera Gutxiagoko Kolektiboen Sustapena (Puntu Gehigarriak)**

Guztientzako ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko, Erasmus+ programak dituen **Inklusio-irizpideak** kontuan hartuz, oinarritzko notari +0,5 puntu gehituko zaizkio.

Egindako proben eta dagokionean, Puntu Gehigarriak gehitu ondoren, lortutako notaren arabera esleitu dira bekak, puntuazio horren arabera ordenatuta.

Aurreko deialdiren batean Erasmus+ programan parte hartu duten ikasleak, erreserba zerrendan sartuko dira, esleipenean Erasmus+ deialditan parte hartu ez duten ikasleek. lehentasuna izanez.

5. Zerrendak argitaratzea

Baremazioa egin ondoren, bekak esleitu zaizkien ikasleen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira ikastetxeko webgunean eta Moodle plataforman.

Ondoren, erreklamazioak egiteko eta ebazteko, bai eta bekari uko egiteko epe bat zehaztuko da.

6. Mugikortasunen kudeaketa

- Behin betiko zerrendak argitaratzen direnetik aurrera, esleipendunek ezarritako epean aurkeztu beharko dute eskatutako dokumentazioa.
- Bekaren kudeaketa ekonomikoa hasi ondoren, ezin izango da uko egin, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- Ikasle batek behar bezala justifikatutako arrazoirik gabe bekari uko egiten badio, uko egin arte sortutako gastu guztiak ordaindu beharko ditu.
- Ikaseen konpromezua sendoa dela egiaztatzeko, ikastetxeak ikasleei fiantza eskatuko die, eta mugikortasuna amaitzean, inolako ezusterik ez bada itzuliko zaie..
Kudeaketa gasturen bat sortu ondoren ikasleak bekari uko egiten badio, jarritako fiantza osoa galduko du.
Ikasle batek mugikortasuna hasi ondoren bekari uko egiten badio arrazoi justifikaturik gabe, fiantza osoa galduko du eta jasotako bekaren zenbateko osoa itzuli beharko du.

Donostia-San Sebastián, 2026ko ekainak 29